



**Zorionak eta
urte berri on!**

Eta Hernanin, neguko oporretan zer?

Neguko oporretan aisialdiaz gozatzeko aukera zabala, Hernanin

Aitor Huizi Kultura zinegotziak, Aitor Lukas Gazteria zinegotziak eta sail bakoitzeko teknikariek aurkeztu zuten 'Eta Hernanin neguko oporretan zer?' egitaraua. Argi adierazi zuten adin guztietarako pentsatutako programa osatu dutela: «25 ekintza izango dira guztira, abenduaren 21etik urtarrilaren 5era».

HERNANI NEGUKO OPORRAK

Gabonekin batera, badatoz neguko oporrek eta Hernanin, ohi moduan, herritarrek izango dute opor egunetarako entretenimendua, 'Eta Hernanin, neguko oporretan zer?' programarekin. Atzo goizean eman zuten programaren berri Biterin, Udaleko Kultura Sailak, Kirol sailak, Haur eta Gazteria sailak eta Hernaniko Gaztelekuak.

Santo Tomas egunean emanago zaio hasiera programari, Gaztelekuak antolatutako sukaldaritza tailerrarekin. Hurrengo egunean, arratsaldean, kulturaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek; izan ere, oholtza gainera igoko dira Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Etxaberría eta

Intza Alkain, 'Baginaren baka-
rriketak' antzezlanaren eskaintzera. Arratsaldeko 19:30etan hasiko da antzezlanaren, eta sarrerak erosgai daude Biteriko leihatilan edo kultura.hernani.eus webgunean.

Abenduaren 24an, Olantzerro eta Mari Domingiren bisita izango dute etxeko txikiek, goizean auzoz auzo pasako dira herritarrek agurtzera eta kale buelta egingo dute arratsaldeko 17:00etan hasita. Gabon gaua pasa ostean, Olentzerok ekarritako opariak ireki eta familiarekin bazkaldu ostean, 'Matrakama non troppo' tailerra eskainiko da familientzat, Milagrosan, 12:00etan hasita.

Abenduaren 27tik 29ra bitartean, Gabonetako ludotekan zilipurdika ibiltzeko tarte ede-



Atzo aurkeztu zituzten neguko oporretarako prestatutako egitarauaren nondik norakoak.

rra izango dute herriko haurrek eta gazteek. Goizetan izango da ludoteka, 10:00etatik 13:00etara bitartean, eta besteak beste, aukera izango dute eskalatze, haurren txokoan jolasteko eta ohe elastikoetan ibiltzeko. Gainera, ludotekak iraun bitartean,

Gipuzkoako elikagai bankua egongo da eta elikagaiak eraman dituen orori abenduaren 29rako antolatu dute bingorako txartela emango zaio.

Abenduaren 27ko arratsaldean, 'Mamut' haur antzerkia eskainiko du Markeliñe kon-

painiak. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da antzezlanaren Biterin, eta sarrerak erosgai dituzte herritarrek Biteriko leihatilan edota kultura.hernani.eus webgunean. Egun berean, Gaztelekuak, alanbrezko zuhaitzak egiteko tailerra eskainiko du,

ALAI
ODONTOLOGIA ZENTROA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

RPS 23/20

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaihernani@gmail.com



**AITAN-ETXE
TABERNA**

GABON
JAI
ZORIONTSUAK!

Larramendi, 15
943 55 00 46

EMAKUME,
GIZON
ETA HAURRAK

CALZADOS
GINETAKOAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI
EGUBERRI ON!!

iparrao
sukaldeak

ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON

Ibarluze poligonoa, 7
20120 - Hernani
t. 943 556 760

WWW.IPARRASUKALDEAK.COM

gazteentzat.

Inuxente egunerako, goizetik arratsaldera bitarterako ekintza mordoa antolatu dituzte. Goizean, Ludotekan jolasteko aukera egongo da, eta arratsalderako, eskalatzeko irteera antolatu dute, Pio Barojan; autobusean joango dira bertara. Eta azkenik, arratsaldeko 17:00etan Biteriko pantaila haundian 'Etxean bakarrik' filma proiektatuko dute, lehenengo aldiz euskeraz bikoiztuta, Zineklubaren eskutik.

Hilabeteari amaiera emateko, Willis Drumond taldearen azken aurreko kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute

hernaniarrek, Biterin. Gaueko 22:00etan emango zaio hasiera kontzertuari eta zutik izango dela aurreratu du Kultura sailak. Aitortu dute sarrerak dagoeneko agortzen ari direla.

Urte berria, ekintza berriak

Komiki tailerrak emango dio ongi etorria 2024garren urteari, zehazki urtarrilaren 2an. Goizeko 11:00etatik 12:30etara bitartean eskainiko dute tailerra, 9 eta 13 urte bitarteko haurrentzat, eta izen ematea liburutegian gauzatu beharko du parte hartu nahi duen orok. Hiru egunetan eskainiko dute komi-

ki tailerra, beraz, urtarrilaren 3an eta 4an ere komikigintzari buruzko xehetasunak jakiteko eta praktikan jartzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek. Axpik eskainiko du tailerra eta ezinbestekoa da aurrez izena ematea; horretarako aukera egongo da etzitik aurrera.

Komikigintzako tailerraz gain, familientzako sormen tailerrak ere urtarrileko egitarauaren zati bat hartuko du, hilaren 3, 4 eta 5, hain justu. Saio bakoitzean eskulan bat egingo dute, aurrenekoa izango da etxeak eraikitzea; hurrengo saioan, elur panpinak egingo dituzte;

eta azkenik, gabonetako zuhaitzak sortzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Aipatu moduan, urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean izango dira familientzako sormen tailerrak, goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean, Biterin. 4 urtetik gorako haurrei zuzendutako saioak dira, heldu batek lagunduta.

Gaztelekuaren eskutik ere izango dira ekintzak urtarrilean; hala nola, *Scape room* irteera, argazki transfer tailerra eta sukaldaritza tailerra.

Antzerkiei dagokionez, urteko aurreneko antzerkia izango da haurrentzat zuzendutako

'Kutxartean' antzezlan. Urtarrilaren 3an oholtzaratuko du Teatro Paraisok, arratsaldeko 18:00etan hasita eta sarrerak Biteriko leihatilan edota *kultura.hernani.eus* webgunean daude eskuragai.

Azkenik, liburutegian, 'Zenbat dakizu?' jolasaren zozketa burutuko dute urtarrilean. Axeri dantza da aurtengo gaia, eta zenbait galdera daude liburutegian dagoen zuhaitzaren alboan. Dagoeneko parte hartu daiteke, eta azken egunean parte hartzaileen artean zozketa egingo dute, urtarrilaren 5an, eguerdiko 13:00etan. **k**

Neguko oporretan zer?

ABENDUAK 21

16:30-20:30 Sukaldaritza tailerra (txistorra). Gaztelekuan.

ABENDUAK 22

16:30-20:30 Karaokea. Gaztelekuan.



19:30 'Baginaren bakarriketak', Biterin. Sarrerak 'kultura.hernani.eus'en edo Biteriko leihatilan.

ABENDUAK 24

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Zinkoenea-

tik abiatuko da kalejira.

ABENDUAK 26

17:00 'Matraka ma non troppo' ikuskizuna. Familientzat musika trenak sortzeko tailerra. Milagrosan.

ABENDUAK 27

10:00-13:00 Gabonetako ludoteka. Kiroldegian.

18:00 'Mamut' haur antzerkia. Biterin. Sarrerak 'kultura.hernani.eus'en edo Biteriko leihatilan.

16:30-20:30 Alanbrezko zuhaitza tailerra. Gaztelua.

ABENDUAK 28

10:00-13:00 Gabonetako ludoteka. Kiroldegian.

15:55 Eskalada irteera (BU11 bus geltokian). Pio Baroja Donostian.

17:00 Zinekluba saio berezia: 'Etxean bakarrik' filma.

ABENDUAK 29

10:00-13:00 Gabonetako ludoteka, Kiroldegian.

10:15 Aquariumera irteera. BU11autobus geltokian.

ABENDUAK 30

22:00 Willis Drumond. Biterin. Kontzertua zutik izango da. Sarrerak 'kultura.hernani.eus'en edo Biteriko leihatilan.

URTARRILAK 2

11:00-12:30 Komiki tailerra. Izen ematea liburutegian (9 - 13 urte bitarteko haurrak).

16:30-20:30 Argazki transfer tailerra. Gaztelekua.

URTARRILAK 3

11:00-12:30 Komiki tailerra. Izen ematea liburutegian (9 -

13 urte bitarteko haurrak).

11:00-13:00 Familientzat sormen tailerra. 4 urtetik gorako haurrek eta heldua. Biterin

15:55 Scape room. BU11 autobus geltokian.

18:00 'Kutxartean' haur antzerkia, Biterin.

URTARRILAK 4

11:00-12:30 Komiki tailerra. Izen ematea liburutegian (9 - 13 urte bitarteko haurrak).

11:00-13:00 Familientzat sormen tailerra. 4 urtetik gorako haurrek eta heldua. Biterin.

16:30-20:30 Sukaldaritza tailerra (Paniniak). Gaztelekuan.

URTARRILAK 6

11:00-13:00 Familientzat sormen tailerra. 4 urtetik gorako

haurrek eta helduek. Biterin.

13:00 'Zenbat dakizu?' Liburutegiko zuhaitz-jolasaren zozketa. Liburutegian.

Informazio osagarria:

-Hernaniko Gaztelekuak antolatzen dituen zenbait ekintzarako izena eman behar da: Gaztelekuan bertan; 668 826 420 telefonora deituta; edota gaztelekua@hernani.eus helbidera idatzita.

-Familientzat sormen tailerretan izena emateko, esteka honetan sartu linktr.ee/gaztetu-n; edo idatzi gazteria@hernani.eus helbidera.

-Antezlanetarako sarrerak, berriz, Biteriko leihatilan edo kultura.hernani.eus webgunean erosita.

AMAI
OKINDEGIA - GOZOTEGIA
Amaia Uitz Anton
Zorionak eta urte berri on!!
Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

Zorionak eta urte berri on!
Gudarien plaza, 13. Hernani
Telefona: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

ARRIATZU BARAZKIAK
Arriatzu kalea 41-Hernani
Eskerrik asko urte hauetan guztietan guran jarritako konfiantzagatik
Zorionak eta urte berri on!
ARRIATZU BARAZKIAK

elkarrekin
Podemos
paz
bakea
سلام
Мир
שלום
Urte berri on!

HATOR AHOLKULARITZA
Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa opa dizkizuegul
Andrekale, 60. Hernani
Tel: 943 55 43 12
www.hatoraholkularitza.net

ikusi-makusi
Eguberrion!!!
23 arratsaldez irekita
facebook.com/ikusimakusi
instagram.com/ikusimakusihernani
Nagusia, 7. Hernani
843 63 04 69 634 607 099

Bertso Lata

Bailaran festa grinik ez zaigunez falta, eskaintza haunditzera dator Bertso Lata

Jende ugari elkartu da orain arte egindako jardueretan. Urte bukatu aurretik, lau ikuskizun gehiago izango dira Bertso Latan: jaialdi nagusia, Olentzeroa, 'Izena eta izana' saio berezia eta urte zaharreko erronda.

HERNANI BERTSO LATA

Neguko oporrak iristen direnean are pisu haundiagoa hartu ohi du bertsolaritzak Hernanin. Aurtengoan ere Bertso Eskolako kideek ez dute hutsik egin, eta jardueraz betetako Bertso Lata antolatu dute.

Asteazkenean izan zen lehenengo ikuskizuna: umeei eskaintako bertso saioa. Lierni Rekondo eta Iker Ormazabal 'Tturko' bertsolariak aritu ziren kantuan, eta, hasiera batean gai jartzailerik agertu ez zen arren, Biteritik zebilen Gartxot garbitzaileak egin zuen lan hori. Gustura entzun zituzten bertsoak Hernaniko eskoletako gaztetxoek, eta txalo zaparrada haundiarekin agurtu zituzten bi bertsolariak.

Bertso Latako bigarren jarduerara ere ez zen atzean geratu.

Punta puntako bertso afaria antolatu zuten atzo, Santa Barbara elkarteak. Bi txapeldun haundi, Andoni Egafia eta Maialen Lujanbio, aritu ziren kantuan, 'Librean eta ez hain librean' deitutako saioan; gai batzuk tartekatuta, alegia. 70 lagun inguru elkartu ziren Santa Barbaran, eta saio borobila osatu zuten.

Jaialdia, 'Izena eta izana' eta errondak

Arrakastatsuak izan dira orain arte egindako jarduerak, eta lau ikuskizun gehiago izango dira urtea bukatu aurretik. Datorren ostiralean, abenduaren 22an, jaialdi nagusia egingo dute Milagrosa aretoan. Bertan, Unai Agirre, Unai Iturriaga, Jone Uria eta Nerea Ibarzabal bertsolariek abestuko dute. Jaialdirako sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, saioa baino ordu-



Gai jartzaile berezia izan zuten.



Ederki pasa zuten Hernaniko gaztetxoek asteazkeneko bertso saioan.

bete lehenago, Milagrosan.

Ostiraletik ostiralera salto eginda, abenduaren 29an izango da aurtengo 'Izena eta izana' saio berezia, Kontrakantxan. Eli Zalduak, Eli Pagolak, Iker Ormazabalek eta Iker Osak abestuko dute bertan.

Amaitzeko, urteroko ohiturei eutsiz, Olentzeroren erronda egingo dute abenduaren 24an, eta urte zaharreko erronda abenduaren 31n. **k**

BERTSO LATA

HERNANI

ABENDUAK 22

19:00 Jaialdia, Milagrosan. Unai Agirre, Unai Iturriaga, Jone Uria eta Nerea Ibarzabal.

Txartelak egunean bertan Milagrosan, saioa hasi baino ordu bete lehenago.

ABENDUAK 24

16:00 Olentzeroa, Iparragirre sagardotegitik hasita.

ABENDUAK 29

19:00 'Izena eta izana' bertso saioa, Kontrakantxa Gaztetxean. Eli Pagola, Eli Zaldua, Iker Ormazabal eta Iker Osa.

ABENDUAK 31

Urte zaharreko erronda.

Feli 1945
Dekoradorak
ESTITXU eta GEMA ANDUEZA
Etxe apainketan adituak
Karobieta 1, 20120 Hernani
Tel: 943 33 05 64
felidecoracion@gmail.com

urteberri on!!
AZKEN KILOMETROA
943 24 71 41 Akarregi, 1 Hernani

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA
Zorionak eta Urte Berri On!
www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

Eguberri on!
PINEDA
HARATEGIA
Andre kalea, 32. Hernani
943 55 16 43

sulabe
Ogirik berezia
Eraman zure mahaira Sulabe oja
www.sulabe.com

Peña Okindegia, Hernani
Tel. 943 552 398
Sulabe, Hernani
Tel. 943 554 954

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian
Zorionak eta urte berri on!
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

Arropa eta jostailu azoka

Arropa, jostailu eta liburuen doako azoka martxan da dagoeneko

Beste urte batez, Amher-SOS Arrazakeria Elkarteak eta Hernaniko Errugbi Taldeak arropa, jostailu eta liburuen azoka antolatu dute. Abenduaren 8an jarri zuten abian, eta hil honetako asteburuetan eta urtarrilaren 6an eta 7an egongo da zabalik Andre Kaleko 3. zenbakian. Larunbatean goizez zein arratsaldez eta igande eta jaiegunetan goizez soilik.

HERNANI AZOKA

Gabonetan sortzen den gehiegizko kontsumoari erantzun bat emateko asmotan, arropa, jostailu eta liburuen azoka jarri dute martxan Amherrek eta Hernaniko Errugbi Klubak, hirugarren urtez jarraian. Helburua etxean ditugun arropa eta produktuak berrerabiltzea da, eta inor ez gelditzea oparirik gabe gabonetan. Abenduaren 8an jarri zuten martxan azoka Andre Kaleko 3. zenbakian eta asteburuetan egongo da zabalik, urtarrilaren 7ra arte.

Larunbatetan goizez zein arratsaldez joateko aukera egongo da, 10:30etatik 13:00eta-

ra eta 16:30etatik 19:00etara; eta igande eta jaiegunetan, berriz, goizeko ordutegia izango du.

Antolatzaileen esanetan, dagoeneko jende asko hurbildu da, bai guraso eta bai haur, eta gauza ugari ekarri dituzte: «Pixkanaka geroz eta jende gehiago enteratzen ari da. Jostailuen gehiengo errugbikoek biltzen dute, baina askok gure lokalaren albotik pasatzean atea zabalik dugula ikusten dute eta opariak ekarriko dituztela esaten digute». Gehienbat jostailuen bila datoz herritarrek: «Kamioiak, kotxeak edo sukaldeak nahi izaten dituzte, baina gu saiatzeko gara libururenbat edo puzlerenbat ere eskaintzen».

Antolatzaileek herritarrei gogorarazi nahi die gabonetako azoka unean uneko kontua dela, baina urte osoan zehar ere herritarrek ekarritako arropa eta mantak jasotzeko biltegia za-



Amherren arropa, jostailu eta liburuen doako azoka. Artxiboko irudia.

Haurrek opariak birziklatu ditzaketela ikasteko modua dela diote, jostailuak ekartzera etortzen direnean ikusten baitute aukera dutela beste zeozer eramateko etxera: «Gustura ekartzen dituzte gauzak eta are eta gusturago bueltatzen dira etxera opari batekin».

Antolatzaileek herritarrei gogorarazi nahi die gabonetako azoka unean uneko kontua dela, baina urte osoan zehar ere herritarrek ekarritako arropa eta mantak jasotzeko biltegia za-

balik izaten dutela, 17:00etatik 18:30etara: «Logistika-kontuentatik, urtean zehar arropa ematea eta jasotzea baino ezin dugu kudeatu».

Ordutegi horietan bertaratu ezin diren pertsonak Amherren telefonora deitzeko aukera izango dute, beste ordu bat koordinatuzko: 667710928

Eskertzak antolatzaile eta parte hartzaileei

Amherrek azoka aurrera ateratzea posible egiten duten nor-

banako bakoitzari eskerrak eman nahi izan dizkie: Hernaniko Errugbi Klubari: «Jostailuak biltzeko ekimenagatik, balioetan heziz eta gure ondoan bizi direnen erralitatea ikusaraziz, bitartekorik ez dutenena»; herritarrei: «Banaka edo kasu honetan bezala, Errugbi Klubaren bitartez, urte osoan zehar arropa, objektu eta jostailuak bidaltzen dizkiguten guztiei» eta biltegia kudeatzen, koordinatzen eta antolatzen duten boluntario guztiei. **k**

Eguberri zoriontsuak izan eta urte berri on!

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

Kronika

apaindura
OIHALA
hogar

Zorionak eta eguberri on!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87 HERNANI

EDARITEGIA
JOMERBI
WASA... O...

Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

Mahuka

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

ANDRE KALEA, 28 BEHEA
HERNANI
943 333 639

URRATS
OINETAKOAK

Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Aurtengo Gabonei elkartasuna eskatuko diegu eta urte berriari osasuna.
Urratsen partetik: "Zorionak eta urte berri on!"

Gabonetako ordutegia: Larunbata 16 eta 23 goiz eta arratsaldez irekita; 9:30-13:30 eta 17:00-20:00

www.Facebook.com/urratshernani
@ urratshernani@gmail.com

Gabonetako erosketak

Gabonetako erosketak egiteko aholkuak, barra-barra

Gabonetako erosketak preziorik onenean eta xehetasunik ahaztu gabe egiteko zenbait gomendio aurkitu daitezke ondorengo artikuluan, beraz, hartu apunteak!

URUMEA GABONAK

Gabonetako erosketen gastua kontrolatzea ez da lan erraza, batez ere haurrak dauden etxeetan. Horregatik, komeni da Gabonetako erosketak preziorik onenean eta xehetasunik ahaztu gabe egiteko gomendio erraz batzuk kontuan hartzea.

Lehenik eta behin, opari-zerrenda eta aurrekontua egitea da gomendagarriena. Gehienezko aurrekontu bat ezartzeak gastu gehiegizkoak edo aurreikusitako gabeak egitea saihestu dezakeelako. Gainera, opari-zerrenda bat egiteak zer denda bisitatuko diren erabakitzen laguntzen du, eta erosketak arintzen ditu.

Bigarrenik, establezimendu seguruetan erostea da egokiena. Denda fisikoetan, gure kasuan herriko komertzio txikietan. Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitako establezimenduetan egin behar da. Bide honek bermatzen du, erreklamazioen bat izanez gero, ebazpena doakoa, azkarra eta inpartziala izango dela.

Erosketetan aurreratzea izango litzateke hirugarren aholkua. Krisiak erosketak azken unera arte atzeratzeko joera areagotzen duen arren, Gabonak baino aste batzuk lehenago opariak erostek



Ordainketak modu seguruan egitea ezinbestekoa da.

aurrezten laguntzen du.

Internetez ere erosi daiteke, egungo gizartean funtsezko tresna bihurtu baita opariak bilatzeko eta prezioak konparatzeko. Hala ere, tokiko komertzioaren aldeko apustua egite aldera, Gabonetako erosketak egiteko non hobe etxe ondoko komertzioaren baino? Beraz, badakizue, egin komertzio txikian erosteko hautua, orain inoiz baino gehiago behar baitute.

Erosketa tiketak gordetzea ere oso garrantzitsua da, komeni da erosketen frogagiriak, fakturak eta tiketak berme bakartzat gordetzea, aldaketak, itzulketak edo erreklamazioak egin ahal izateko.

Era berean, aditu askok dio-

te, opari-txartela hautatzea dela gomendagarria. Izan ere, establezimendu jakin batean gastatu daitekeen diru-kopuru jakin bateko txartela da. Aukera ona da zer oparitu ez dakigunean edo oparitzen zaion pertsonaren gustuak ezagutzen ez direnean. Eta azkenik, jostailu bat oparitzen denean, kontuan hartu behar da etiketak jostailuen segurtasun-marka (Europako adostasuna) eta fabrikatzaileari edo inportatzaileari buruzko informazioa izan behar dituela.

Kontutan hartu beharreko jostailuen ezaugarriak

Era berean, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa (EKA) Gabonetan gurasoek opariak

erosi edota aukeratzeko garaian kontutan izan beharreko zenbait ezaugarri elkarbanatu ditu: Jostailuek, ondo pasaratzeaz gain, seguruak izan behar dute haurrarentzat; Produktu batzuek ez dituzte Europar Batasunak zehaztutako arauak errespetatzen; kontuz ibili behar da aukeratzeko garaian; Jostailu bakoitza adin tarte baterako da egokia; gurasoek txikitatik heziketa sexista, oldarkor eta arrazista alboratzea beharrezkoa da; Jostailuak funtzionatzen duen ikusi behar da; etiketan jostailuaren izenak, zergatiak, markak, egilearen helbideak eta herrialdeak zehaztuta egon behar dute irakurtzeko eta ulertzeko moduan; Jostailu bakoitzean zehaztuta egon behar

du zein adinetarako den egokia; jostailua nola erabili behar den eta zer arrisku dauden ere ohar-tarazi behar da; Jostailuak segurtasun arau guztiak betetzen baditu, Europako homologazio probak pasatu dituen seinalea eduki behar du; Haurraren izaera kontuan izan behar da opariak erosteko garaian; Haurrek sortzeko gaitasuna landu behar dute, daukatena baloratzen ikasteko. Jostailuak etorkizunean erabilgarri izango diren balioak ezagutzen lagundu behar dio haurrari: partekatzea, taldean jolastea, erlazionatzea...; eta jostailua erostean ordainagiria eskatu behar da beti; urtaro jakin baterako soilik ez diren dendentan erosi jostailuak.**k**

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

ANTZIOLA
OKINDEGIA

Eguberri on!!

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

IRUBIDE JATETXEA

Zorionak eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Gabonetako jostailuak

Oparia jolaserako edo heziketarako tresna?

Galdera horren bueltan, milaka zalantza sortuko zaizkie gurasoei. Izan ere, Gabonetan, opariak erostea askotan erraza izaten da, baina asmatzea ez ordea. Horregatik, haurren heziketaz arduratzen diren adituen (Ikasbil) usteak elkarbanatu ditugu ondorengo lerroetan.

URUMEA OPARIAK

Ate joka ditugu Gabonak, eta horrekin batera, Olentzero, opariak eta otordu amaigabeak. Haurrentzat eta tokiko komertzio askorentzat oso data garrantzitsuak dira urte amaiera iragarzen duten festa hauek. Gurasoentzat, aldiz, buruhaustea izan ohi da haurrentzat egokiena zer den asmatzea; izan ere, honelako galderak izan ohi dituzte buruan bueltaka: zer erostea komeni da? Oparia jolaserako edota heziketarako tresna bat da? Galdera hauei erantzun ederrak eman dizkiete Ikasbileko adituek.

«Lehenengo erosi edo ez erosi erabaki behar dugu, ohituta ez bagaude ere jostailuak birziklatzea edo partekatzea ere posible

baita», azaldu dute adituek. Era berean, erosteko erabakia hartzen bada, zeri begiratu behar zaion aholkatu dute: «Adina kontuan hartu behar da, horren arabera garatzen baitira gaitasun batzuk. Horrez gain, gizartea nolakoa den aztertu behar da; gizarte patriarkala da gurea. Gu umeari gizarteak eman ezin diena ematen saiatzen gara. Neska edo mutila izan, gauza positiboak transmititzen saiatu behar dugu».

Behin oparia erosiko dugula erabakita, hurrengo pausua, beraz, zein da? Adituek gomendatu dute adin tarte bakoitzaren arabera erosteketa egitea; hau da, «hasieran, ukimena, entzumena eta ikusmena lantzea da egokiena; behin 6 hilabetetik aurrera



10-11 urte bitarteko haurrentzat besteak beste erosi daitezke mahai-jokoak, eta ipuinak.

mugikortasuna handiagoa da, eta psikomotrizitatea lantzea komeni da».

3 urtetik aurrerako haurra, dagoeneko bere gorputza ezagutzen hasiko da, nolakoa den ulertzen, eta gaitasun batzuk bereganatzen eta ezagutzen hasiko da. Horrenbestez, adituen esanetan, «ibiltzen, korrika egiten eta hitz egiten badakite, normalean; ipuinak, jolas sinbolikoak eta ukimena lantzeko jolasak dira

egokienak. 3-5 urte artean moztarrok, panpinak eta kotxetxoak erabiltzeko moduan izaten dira».

6-10 urte artean, aldiz, «abstrakzio kognitiboa garatzen» hasten direla nabarmendu dute adituek, eta horregatik, galdera jolasak, sinboloak, musika tresnak eta ordenagailuak erostea komeni dela gaineratu dute: «10-11 urtetik aurrera logika garatua izaten dute. Pentsatu, aztertu eta interpretatzeko moduan

izaten da haurra; horretarako, mahai-jokoak, amaiera desberdineko ipuinak eta elkarlanean aritzeko jokoak komeni dira».

Jostailu bat erostea, «erraza da, asmatzea da «zaila», hala aitortu dute adituek. Beraz, ondorengo gomendioa luzatu diete gurasoei: «Erosi aurretik pentsatu. Jostailuen bidez hainbat balio transmititzen dizkiegu haurrei. Gurasoak ez gara laguntzaile soilak; hezitzaileak ere bagara».**k**

Zorionak eta Urte Berri On!

DORRONSORO OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegutan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegutan: 7:00-14:00

Xarman

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Urte berri on!!!!

Ostolaga 2. Tlf. 943 33 59 08

URALDE K21
ITURGINTZA

50. URTEURREA
1970 - 2020

ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
ZORU BERO EMAILEAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Bezere guztiei urtean zehar erakutsitako fideltasuna eskertu nahi diegu. Mila esker!

Mate y Flaquez, 5 behe 1 HERNANI - Tel 943 55 33 55 - uralde@uraldeiturgintza.com

ttilin ttolon

Pare biomagnetikoa
Masajea - Osteopatia
Nutrizionista
Naturopatia medikua

Txirrita 10. Hernani

Telefona 943 55 56 94
WhatsApp 686 265 157

Ordutegia: astelehenetik ostiralera
8:15etatik 19:45etara jarraian.
Eta larunbatetan 9:00etatik 13:30etara.

«Sorioneku» guztiok,
euskarak egiten gaitu eta

Gabonak, etxea apaintzeko aitzakia

Etxeari nortasuna, Gabonetako apaingarriekin

Gabonak ate joka ditugun honetan, etxea apaintzeko aitzakia ederra da, askorentzat behintzat. Beraz, ondorengo artikuluan, etxea gabonetako apaingarriekin atontzeko zenbait ideia aurkitu ditzakezue... ea zuen gustukoak diren!

URUMEA GABONAK

Iritsi da etxea argiz eta apain-garriz betetzeko garaia, hemen dira urte amaierako festak: Gabonak. Neguko jai hauek, askorentzat bereziak izan ohi dira eta askok sormena lantzeko eta zabaltzeko erabiltzen dute. Horregatik, ondorengo lerro hauek, etxea apaintzea gustuko duten horientzat doaz.

Hasteko, Gabonetan etxea apaintzeko apaingarri aproposenak landare artifizialak dira; izan ere, mantentze-lanik ez dute eta itxura ederra izaten dute egunero. Neguan sartuta gaude bete-betean, eta etxean berogailua piztuta egoteak landare naturalan kaltea egin dezake, beraz, gomendagarriena horixe da: landare artifizialak erabiltzea; behin Gabonak amaituta, mate-

riala jaso eta datorren urteetarako ere balio dute eta.

Gabonetarako etxea apaintzeko inspirazioarik ez baduzu, ondoren aipatuko ditugu etxea apaintzeko zenbait ideia. Batek dago, ateko koroa. Portaletik edota etxeko sarreratik pasatzen den oro ohartuko da Gabonak ospatzen dituzuela etxean. Eta lanetik etxera zoazenean ere, koroa ikusi eta Gabonak ate joka ditugula ohartuko zara, etxekoekin egoteko garaia, abesti zaharrak kantatzeko garaia, ardo botila bat irekitzeko garaia, aitoren kontu zaharrak entzuteko garaia....

Etxea apaintzeko beste elementu garrantzitsu bat zuhaitza izan daiteke. Askorentzat, zuhaitza etxeko dekoraziorako funtsezko pieza da, nahiz eta zuhaitz artifizial txiki bat izan.



Gabonetan etxea atontzeko, zuhaitza da gehien erabiltzen den apaingarria.

Gaur egun gainera, material, tamaina, kolore, forma eta prezio guztietako gabon zuhaitzak daude, gustu eta poltsiko guztietarako aproposak hain zuzen. Zuhaitzaz gain, Gabonetako galterdiak ere ezinbestekoak direla diote batzuk.

Kandela batzuk, anana, granada edo baia gorri txiki batzuk

etxeko mahaian jarriz, dotore geldituko da etxea, Gabonen kutsu eta usainarekin. Balkoia izan edo ez, ez ahaztu leihoak giraldekin, kanpaiekin eta beste apaingarri batzuekin jantzi daitezkeela. Oso itxura ona dute, kanpora ere bizitza gehiago emango du.

Bakoitzaren irudimenaren

eta sormenaren arabera da etxea apaintzea. Askotan, dekorazio ukitu txiki batek, etxeari sekulako nortasuna ematen dio. Gabonak gustuko badituzu, beraz, animatu eta apaindu etxea; izan ere, oso jai laburrak dira, gutxien espero duzunean, dena amaituko da eta ohiko dekoraziora itzuli beharko dugu.**k**

RIOJA TABERNA
Kale Nagusia, 6. Hernani

2022 urtea ere pasa zaigu...
Urte berri on guztioi!

Eukene
Jantxidenda

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

Rd 61/15

Urrutia Farmazia
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

SPD/ANALISIAK/DERMOFARMAZIA/ZERBITZU DESBERDINAK

Etxeberri Auzoa 1, Hernani 943 55 77 38 / 688814035
urrutia.farmacia@gmail.com

ALTZEA
automecánica

- Olio eta filtroak aldatzea
- Mailak kontrolatzea eta doitzea
- Frecoak kontrolatzea (frenometroa)
- Suspensio kontrola (bankuan)
- Neumatikoen kontrola
- Holguren kontrola (bankuan)
- Argiak kontrolatzea eta doikuntzak

Cepsa olio jartzearekin argidun llibero bat eta kotxerako mobileko euskarri

AUTOMOBILAREN ZERBITZU INTEGRALA

Zkuñaga auzoa, 20 1. nabea HERNANI 943 333 177 e.maluenda@hotmail.com

PODOLOGIA
NEREA URDALLETA GUERRA

ONDO IBILI GABONETAN

943 55 60 13
KALE NAGUSIA 16,
ASTIGARRAGA

AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

HERNANI
943 386 962
Elkano Kalea, 35
www.auditekoentzuaudtivo.com

AUDIOLOGIAN ADITUAK
Zure entzumenaren osasuna zaintzen dugu

Ongi entzuten eta behar bezala ulertzen lagunduko dizugu Auditek-en, zure beharretara egokitzen diren soluzio eta tratamenduak eskainiz. Zure kasua baloratuko dugu eta soluziorik egokiena eskainiko dizugu.

- ✓ Audiometriak: haurrak nahiz helduak
- ✓ Merka guztietako audifonoen konponketa
- ✓ Audifonoak
- ✓ Akufenoak
- ✓ Entzumen-neuroestimulazioa
- ✓ Neurriren egindako tapoiak

Etxean egindako gabonetako apaingarriak

Eskuz egindako apaingarriak, etxeari goxotasuna emateko

Gabonetan etxea apaintzeko produktuen kontsumoa murrizteko, berziklatzeko eta hilabete amaieran euro batzuk aurrezteko, ehunka ideia daukazue eskuragai ondorengo artikuluan. Etxean goxo-goxo seme-alabekin, ilobekin edota zeuk bakarrik egiteko proposak dira, beraz, jarri martxan!

URUMEA GABONAK

Aurreko orrian argi dio, askorentzat ezinbestekoa dela Gabonetan etxea apaintzea; baina are garrantzitsuagoa da, etxerako apaingarrietan aurrezten jakitea. Oparietan nahikoa diru gastatuko denez, apaingarrietan aurrezteko aukera bada; nola? Gabonetako apaingarriak etxean eskuz egiten. Horretarako zenbait ideia daude berriztagarria.eus-en, eta Kronikak zuekin elkarbanatu ditu.

Era berean, etxea apaintzeko produktuen kontsumoa murriztuko dugu, ingurumenaren gaineko eragina murriztu eta hilabete amaieran euro batzuk aurrezteko ditugu. Sormenak ez du mugarik, beraz, goazen!

Errazenetik hasiko gara: paperekin egindako zuhaitzeko

zintzilikairuak. Papera behar da eskulan hau egiteko. Opari-papera, kartoia edo aldizkari zaharrak ere bai. Alde batetik, kartoi nahikoarekin, Gabonetako zuhaitz ederrak egin ditzakegu. Txartel hauek gordetzen dugun opari paperekin itsatsi besterik ez dugu egin behar.

Eskulanak egiteko beste material aproposa kortxoa izan daiteke. Kortxoa brikolajearen munduan ondo moldatzen den beste material bat baita. Lehenik eta behin, kortxozko xafla txiki bat har dezakezu apaingarri polit bat egiteko. Elurretako eskularruak, txanoa edo botak eta elastikoa. Apain itzazu pintura zuri edo zilarrezkoarekin. Bestalde, ardo tapoiak ere baliagarriak izan daitezke. Kasu honetan, izei edo pinudi tipikoak ere beharko ditu-

zu. Kortxoa enbor gisa balioko du eta berdez margotutako anana izango da Gabonetako zuhaitz berezi honen koroa. Eta nola ez, goi aldea, izarra jartzea ez ahaztu. Era berean, Gabonetako koro eder eta alternatibo bat egin dezakezu zure etxeko atea apaintzeko, kolore berdearekin edo nahi duzun beste edozein koloretan egin ditzakezu.

Hariarekin edota alanbrearekin ere gauza ederrak egin daitezke, esaterako, izar polit baten eskema egin dezakegu (alanbrearekin) eta adar berde batzuekin apainduz. Material honen aldakortasunari esker, Gabonetako zuhaitz handi bat ere egin dezakegu alanbre zurrunarekin zirkuluak eginez. Eskegi adar bakoitzetik dekorazio ezberdin bat eta ekarri Gabonak zure mahaira.

Arropak zintzilikatzeko pintzei erabilgarritasuna emateko, Gabonetako koro eder eta alternatibo bat egin daiteke, etxeko atea apaintzeko. Ez ahaztu koloretaztea, nahi beste koloreekin. Beste aukera dibertigarri bat arropa-pintzak bi zatitan zatitzea eta elur maluta itxurako sorkuntza ederrak sortzea da. Konplikatuak dirudi, baina ez da. Gabonetako zuhaitza apaintzea ez da zaila eta emaitzak nahiko dibertigarriak



Izaskun Otegi hernaniarrak bidalitako argazkia, etxean eskuz egindako koroa.

izan daitezke.

Eta amaitzeko, zuhaitzean jartzeko loreak edota izarrak egin daitezke botilaren azpiko-aldea eta makarroiak erabilia. Botilaren azpiko-aldea moztuta daukagunean, inguruan puntadun ma-

karroiak itsatsiko dizkiogu, eta behin lehortzen direnean nahi beste kolorez apaindu daiteke. Soka bat jarri loreari, eta zuhaitzean zintzilik seguru sekulako argia emango diola etxeko zuhaitzari.**k**

Leizuri
arte izozkiak

Gurpil gaineko izozki denda

Urte amaierara arte ostegunetan Hernanin eta ostiraletan Astigarragan egongo gara.

Ospatu Gabonak izozkiarekin!

food truck

Zorionak eta urte berri on!

PSE-EE
PSOE HERNANI

IMANOL KAMIO
musika eskola

DOINU-ZALE
musika eskola

KARABEL AUZOA, 4 - behea ezkerrean
943 33 12 33

Solfeoa	Biolontxelo	Tronpeta
Pianoa		Trikitixa
Akordeoa		Kitarra
Panderoa		Abesbatza
Bateria Modernoa		Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.
Eguberri On!

Adarraga
HERNANI (Dorretan)

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ADARRAGA

Gozotegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

Arrobi
ostatua

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu
2024 zoriontsua izan dezazue!

Santa Barbara auzoa 87
20120 HERNANI
tel 943 337 211
mov 629 991 476
info@arrobiostatua.com

www.arrobiostatua.com



HERNANIKO SORTZAILEEN AZOKA

**Abenduak 23, 10:30-14:30
Plaza Berri**

Bihurri | Ni Naiz | Berexi Art
Itzal Diseinua | Puochinah
Maitandu Makrame | Zatika
Ekinazea-Elur | Sigue la estela
Oliparok | Koloreztatu | Txirikorda
Laupitxiak | Hiruloretxo
Arrate eta Nekane | Korapilatuta
Josune eta Izaskun

14:00
Sortzaileen produktuz osatutako
saskiaren zozketa

ANTOLATZAILEAK

Kronika

**DO
BE
RA**
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEA

**Hernaniko
Udala**

III. Sortzaileen Azoka

17 postuk osatuko dute aurtengo Sortzaileen Azoka

Abenduaren 23an ospatuko dute Sortzaileen Azokaren hirugarren edizioa. Aurtengoa Plaza Berrin izango da, goizeko 10:30etan irekiko dituzte ateak, eta eguerdiko 14:30etara bitartean, Gabonetako opari ederrak erosteko aukera zabala eskainiko dute Urumea bailarako sortzaileek.

HERNANI SORTZAILEON AZOKA

Urumea bailarako artistek hitzordu garrantzitsua dute abenduaren 23an: Hernaniko Sortzaileen Azoka. Hirugarren edizioa izango da aurtengoa, eta ez da ohi moduan Atsegindegín izango; aurtengo azoka Plaza Berrira lekualdatu dute. Goizeko 10:30etan irekiko dute Hernaniko Sortzaileen Azoka, eta eguerdiko 14:30etan itxiko dituzte ateak. Guztira 17 postuk osatuko dute azoka eta proiektua bailarako sortzaileek eraman dute aurrera, Dobera-Kronikaren eta Hernaniko Udalaren laguntzarekin.

17 postuz osatutako azoka ederra

Hona hemen, Sortzaileon Azokako postuak: Nerea Molano 'Bihurri', hiru dimentsiotan inprimatutako diseinuak; 'Ni Naiz'; Uxue Bereziartua 'Berexiart' diseinua, Marina 'Itzal' diseinua; Aziz eta Maialen 'Puochinah' arropa afrikarra, Maitane Anduenza 'Maitandu Makrame' makramezko produktuak; Amaia Zuaznabar 'Zatika', hiru dimentsiotan inprimatutako bitxiak; Nagore Intxausti Ekinazea-Elur; Estela 'Sigue la estela, baby' umeentzako produktuak, Mai-xus Jauregi 'Oliparok'; Ana Velez, 'Koloreztatu' xaboiak eta kosme-

tika, Garazi Loiarte 'Txirikorda', konplementuak; Laura Pacheco 'Laupitxiak'; Arrate eta Nekane; Ester 'Hiruloretxo' punta eta gantxilloa; Paki Korapilatuta, panpin jantziak; eta Izaskun eta Josune, ukenduak, xaboiak...

Abenduaren 23an izango da Sortzaileen Azoka, eta herritarrek aukera ederra izango dute tokiko sortzaileen produktuak erosteko, Gabonen bueltan. Beraz, ez galdu aukera! **k**



Aurten azoka ez da Atsegindegín izango, Plaza Berrin izango da.



Mota guztietako produktuak erosteko aukera izango dute herritarrek, 23an



17 postuz beteko dute, Plaza Berri, datorren asteburuan.

ARTOLA
HARATEGIA

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Andre Kale 20
· Hernani ·
Tif.: 943 05 54 89

Amaia
arrandegia

Zorionak eta urte berri on!

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

PORTALONDO
estankoa

Tabakoa ·
Puru aitzurketa ·
Loteria ·
Jokoak ·
Paperdenda ·

Zorionak eta urte berri on!

T 943 55 19 91 · Andre kale 46 Hernani
Info@portalondoeestankoa.eus
www.portalondoeestankoa.eus

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MAITEAK,

_____ NAIZ, ___ URTE DITUT, ETA _____-N BIZI NAIZ...



A series of horizontal lines for writing, contained within a dashed rectangular border.

Hartu margoak
eta ekin
margotzeari!

